



Anne Rodriguez Kintana GARAre Gasteizko erredakzioan. GAUR8

infraganti ANNEKDOTAS

«Aurrez aurre» bideoklipa estreinatu berri du, emakumeen ahalduz abesti bat. Aurten albuma plazaratzea espero du, bere musika eta hitzekin, oso gaztetatik egiten duen guztiak bezala mezu feminista garbia izango duena. Anne Rodriguez Kintana olatzagutierra hasi besterik ez da egin, baina argi du zer nahi duen musikan eta bizitzan.

Martxoak 8 ditu. Anne Rodriguez Kintana musikari olatzagutierra herrian dago, Gasteizko autobusa hartzeko zain, GAUR8ren deia jaso duenean. Eguneko mobilizazioetara joan baino lehen tar- te bat daukala dio.

Gasteizen bizi da astegune- tan; asteburuak Olatzagutian ematen ditu. Hantxe elkartu ohi da amarekin, hura Iruñean bizi baita. «Bien arteko erdi-er- dian elkartzen gara», dio.

Aurkeztu duen lanagatik zo- rionak eman izana eskertu du. Eta Emakumeen Nazioarteko Eguna izateagatik? Pentsatu egin du pixka batean. «Bada, bai, egun hau kontuan har-

tzea lortu delako, egindako la- nagatik. Normalean zorionak lan bat egin ondoren ematen dira; beraz, horregatik izan beharko lirateke zorionak, egindako lanagatik».

“Aurrez aurre” bideoklipa es- treinatu berri du Annekdotas izen artistikoa duen gazte na- farrak, emakumeen ahaldu- tze abesti bat. Beldurbarik pro- gramak sortutako *playlist* honetan dago ikusgai: www.beldurbarik.eus/eu/. Ber- tan, BB Jarrera duten abestiak daude jasota.

UMETATIK MUSIKARI

Gustukoa du mota guztietako musika, entzutea eta sortzea. Sei urterekin pianoa jotzen ikastera joaten zen Iruñeko neska baten etxera. Hark An- neren gustuko euskarazko abestiak prestatzen zizkion pianoz jotzeko, eta gaur egun hari esker jarraitzen duela dio pianoa jotzen, «zeren haur asko erreta ateratzen di- ra kontserbatoriotik, eta hori ez da nire kasua izan, beha- rrik». Ondoren, bere kabuz jarraitu zuen pianoaren doi- nuan abesten.

11 urte zituela, ETBko cas- ting batera aurkezteko aukera izan zuen ikastolan. Bideoklip batean parte hartu zuen “Ziz- tu bizian” interpretatuz, “A toda mecha” abestiaren eus- karazko bertsioa. «Oso espe- rientzia polita».

Derrigorrezko Bigarren Hez- kuntzan zebilela, “Auskalo” emakumezko taldea sortu zuen beste zenbait lagunekin. Haren ustez, oso garrantzitsua da garai horretan entzuten den musika, «zeren hori da zu- re identitatea argitzen ari de- nean zuk erabakitzen duzun musika». Urtero Nafarroako Haur Kantarien Jaialdietan parte hartzen zuen taldeak, eta azken urtean, 2016an, kon-

posiziorik onenaren saria ira- bazi zuten, Anneren musika eta hitzak zituen “Amorru malkoak” abestiarekin. Gita- rra, piano, biolin eta bost aho- tsetarako abesti hura tratu txarrak jasandako emakume baten gainekoa zen. Ez dago abestiaren izenburuaren zer- gatia azaldu beharrik. Amak galdetzen omen zion nolatan bururatu zitzaion letra hori. «Azken finean, nik 14 bat urte nituen eta nik ez nuen hori su- frituta, baina gure belaunal- diaren aurreko emakumeek egunerokoan jasan izan dute, eta horiengandik ikasitako be- launaldia gara gu». Ikastolako talde feministan zebilen ordu- rako; beraz, argi zeukan bere ibilbidea borroka feministari lotua izango zela.

AKTOREA

Antzerkia ere betidanik izan du gustuko. Batxilergoa egite- ko garaian ez zekien zer hau- tatu, eta Barañainen Antzerki Batxilergoa egiteko aukera zuela jakin zuenean, «horre- tan ere zortea izan nuen», ho- rri heldu zion gehiegi pentsa- tu gabe. Ondoren, Gasteizko Antzerki Eskolara joan zen ikastera. Eta egin izan du an- tzerkia, baina ez asko, ez mu- sika adina, behintzat. Gogoan du orain dela zenbait urte Gasteizen “Martin Ttipia” an- tzezlanean parte hartu zuela, esate baterako. «Gainera, ni nafarra izanda, poz-pozik». Edonola ere, benetan gustuko duena eszena da, agertokia. «Edozer egitera igota ere, ipuinak kontatzera... Nire le- kua agertokia da».

Orain aspaldi ez dela, “A gol- pe de palabra” obran parte hartu zuen. Gazteei bideratu- tako berdintasun mezua da, eraso eta jarrera matxistak non aurkitzen diren seinala- tzen duen antzezlanea. «Gaur



«Aurrez aurre» bideokliparen eszena batzuk Arabako Batzar Nagusietako bulego batean filmatu zituzten. Adriana FARINAS

egun beharbada eraso zuzen eta argi gutxiago daude, baina matxismoa oso barneratuta dago eta denera moldatzen da. Emakume gazteek asko jasaten dituzte, esate baterako, sare sozialetan. Agian argazki bat igotzen duzu eta mutilak ezin duzula hori igo esango dizu, sakelakoa kontrolatzen saiatuko da... eta horrelako gauzak ikusarazi nahi ditu antzerki lan horrek, edo gauean etxera itzultzerakoan emakumezkoak kalean sentitzen dugun beldurra», azaldu du Annek. Antzezlanaren ondoren ikusitakoaren gaineko eztabaida izan zela gogoratu du: «Oso interesgarria zen ikustea nola emakumezkoak konturatzen ginen gauza batzuek gizonetzkoak ez ziren konturatzen, eta askok nola aitortzen zuten hala dela».

ZIGILU FEMINISTA

2018tik aurrera estilo berriei eutsi zien musikari nafarrak, reggaetona eta beste erritmo batzuk entzuten hasita. Oso gustura kantatu izan dituen abestiak; hala ere, hitzak oso oldarkor eta matxistak iruditzen zaizkio. Hain gustura dantzatzuten abesti horien antzekoak egin nahi zituen, baina letra aldatuta: «Gau osoan dantzatu duzun musika beste letra batzuekin entzunga, beharbada buruan beste giro bat duzula iritsiko zara etxera, ez dakit».

«Aurrez aurre» bideoklipa estreinatu berri du Annekdotas izen artistikoa duen gazte nafarrak, emakumeen ahalduntze abesti bat. Beldurbarik programaren playlistean dago ikusgai

Musika urbanoari ekin dio, bere ikuspegia ondo nabarmen utzita. Berdintasuna eta oro har matxismoaren aurkako jarrera militantea da Anneren abestien ezaugarri nagusietakoa

Ez du estilo bakarra. Gaur egungo erritmoetara jotzen du, musika urbanora, baina hitzekin oso selektiboa da, denetik entzuten badu ere. «Ez ditugu letrak gure bizitzara eraman

eraman behar, baina entzuten dituguneibuektak ematen dizkiegu buruan. Nik ez diot gehiegizko garrantzia ematen entzuten ditudan letrei; nik egiten ditudanei, al-

diz, bai».

Musika urbanoari ekin dio, beraz, baina bere ikuspegia ondo nabarmen utzita. Aspal-ditik berdintasuna, parekide-

tasuna eta tratu txarren eta oro har matxismoaren aurkako jarrera militantea da Anneren abestien ezaugarri nagusietakoa. Berak egindako letren mezua horrexen ingurukoa da.

Nolanahi ere, beste zenbait taldetan ere ibili izan da: Potroberoak punk taldean abeslari eta teklatu jotzaile, Noise Fucktory heavy metal taldean eta Sabin Joaquina y Veciversa taldean, harik eta joan den urtean bakarkako bidea jorratzea erabaki zuen arte.

Potroberoak taldean emakumezko bakarra zen bera, baina kikildu gabe jarduten zuen; hain zuzen ere, taldearen izena eta denak gizonetzkoak izanda ere, dena ematen zuen agertokian, eta beste horrenbeste Noise Fucktoryn: «Heavy metala beti oso matxista izan da, eta esan zidaten abeslaria behar zutela; gainera, Judas Priesten bertsio bat egin behar zuten, eta oso ahots altua behar zuten. Nik egingo nuela esan nien, eta hiru urte eman genituen heavy metala egiten. Asko gustatzen zitzaidan, zeren publikoak ikusten zuen emakume bat gizonetzkoen hainbat abesti kantatzen, heavyaren gogortasun horrekin... kontraste hori. Gainera taldekideek ere asko laguntzen eta animatzen ninduten».

HAUSNARKETA, ABESTIETARA

2018an “Kalamar man” sortu zuen, berari gertatutako esperientzia batetik abiatutako abestia, parranda egun batean mutil batek ipurdia ukitu zionekoa kontatzen duena. «Gainera, mutil hark ez zuen deus lortu, zer irabazi zuen? Abestiak dio ez duela ni ukitzeko eskubiderik». Aspal-di gertatu zitzaion hori, amarekin lehenengo parranda egin zuenean.


«Tristea da, baina lotsatuta sentitzen zara ipurdia ukitzen dizutenean, nire erreakzioa izan zen pentsatzea amaxori ez niola kontatu behar», dio Annek. Baina gertatuaren gaineko hausnarketa egin zuen, eta musika jarri zion. «Emakume guztiok jasan dugu hori, nahi gabe edo nahita, baina gizonen artean hori ez da gertatzen». Anneren letrak «amorrua bideratzeko modu bat» dira. Motxilan koaderno bat eramaten du beti eta beti.

Bakarkako bidean murgilduta, pianoarekin eta ordenagailuarekin abestien oinarriak egiten ditu, hitzak eta ahotsa jarri eta berak grabatzen ditu abestiak, etxean.

Hitzak euskaraz eta gaztelaniaz egiten saiatzen da eskuarki, eta honela azaldu du: «Gaur egun arabieraz eta frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez entzuten dugu, eta kontua da hemen taldea euskalduna edo erdalduna dela, abesti osoa euskaraz edo dena gaztelaraz, baina ez nahastuta, eta azken batean, ni euskalduna naiz eta erdalduna ere bai, eta nire adirazpidea ere bi hizkuntzetakoa da. Egunero erabiltzen ditudan bi hizkuntzak dira».

«AURREZ AURRE»

«Abantailen koska berdintzeko ez badaude prest/ aurrera egiten gabilta tinko, without rest./ Indartzen eme, neska, emazte, dama ta andre/ jarki gara ta orain zer? Aurrez aurre!». Horrela dio David Alvarezek zuzendutako bideoklippeko abestiaren amaierak. «Ez da emakumeen borroka bakarrik. Gizonezkoen borroka ere bada. Normalean gizonezkoak ez dira konturatzen badituztela pribilegio batzuk emakumezkoek ez dituztenak. Nik uler dezaket gizon batek bere pribilegioak



Olatzagutiko porlan fabrika. Adriana FARINAS



Anne filmazioan. Adriana FARINAS

koak bezala emakumezkoak ere egotearekin».

LAGUNAK, EZINBESTEKOAK

Oso garrantzitsua dela dio bere sustraiak eta bere lagunak agertzea, «betidanik izan ditudan lagunak, ikaragarri maite ditudanak». Annek lagun gehiago agertzea nahi zuen, baina covid-19a dela-eta ezinezkoa izan da. Edonola ere, hurrengo lanetan emakumezko gehiago ateratzea da haren asmoa. «Zuk orain gizonezkoen bideoklip bat ikusten baduzu, kantaria agertzen da eta atzean 30 gizon builaka. Nik orduan pentsatzen dut hori nahi dudala egin, baina denak emakumezkoak direla. Orain covidaren kontu honekin ezin da, baina nire asmoa da horrelako bideoklip bat ateratzea, emakumezkoak ere samaldan joan gaitezkeela erakusteko».

Bere nortasuna ere argi utzi nahi du bere lanetan, eta gogoa du nola hasi zen nortasun hori eraikitzen: «Amak beti esaten zidan gauza bat: 'Anne, guk bi borroka ditugu; bat, euskalduna izatea, eta bestea emakumea izatea'. Olatzagutikoa naiz, nafarra naiz, eta hori asko gustatzen zait, eta hori guztia nabariarazi behar dut, nire nortasuna. Bi lan izaten ditut egunero, euskalduna izatea eta emakumea izatea, eta hor ere amorrua dago, horregatik ere idazten dut».

Berehalako proiektu gisa, sei edo zazpi abestiko album bat atera nahi luke, «Aurrez aurre» hau ondo atera dela ikusita. Eta horretan dabil. Bost bat hilabeteko lana du aurretik horretarako, ordea. Gogo eta kemen falta behinik behin ez dauka. •

Xabier Izaga Gonzalez

galdu nahi ez izatea, inork ez du nahi, eta abestiak 'aurrez aurre' dio emakumeok pribilegio horien bila goazela. Gizonezkoak ongi bizi dira eta utz ditzagun, baina guk beraiek bezala bizitzera iritsi behar dugu, 'pribilegio' horiekin, eta lan egin behar dugu horra iristeko».

Bideoklipa Arabako Batzar Nagusietako bulego batean eta Olatzagutiko Cementos Portland Valderrivas fabrika grabatu dute. «Hasieran nik ez nuen fabrika grabatu nahi, zeren fabrikaren inguruan zalapartak izan dira herrian, nahiz eta herriko jendeak hor lan egin duen, halako kontraesana egon da beti, eta ez da ahaztu behar Olatzagutian minbizi tasa altuagoa dela fabrikarengatik... Baina Davidek proposatu zidan emakumeak edozein lanpostutan lanean agertzea, lagun batzuek daukaten garaje batean, porlan fabrika, eta ni ez naiz fabrika horrekin identifikatzen, baina bai fabrika horretan gizonez-